

El Carbonero.

Grosa uhartetik bi itsas miliatara, Murtzian, El Carbonero goitzenaz ezagutzen den kroskoa dago.

Hondo hareatsuan iltzatua dago, nabigazio posizioan, eta 40 metroko sakoneran. Hemen dago Lehenengo Gerrate Mundialean hondoratu zutenetik, urpekari alemaniar batek torpedoz erasota ziurrenik, Palos lurmuturretik gertu.

Inguruko jendeak El Carbonero deitzen du, bere sotoetan ikatz ugari aurkitu zutelako, baina ez dakigu ontziaren zama edo erregaia besterik ez zen. Badira mineralaren artean arma eta munizioak ezkututzen zirela uste dutenak ere. Eta hauek gerrako bando bat zein bestearentzat izan zitezkeen.

Nahiz eta inguruan goitzen hori hartu, itsasontziaren izena *Thordisa* zen, egoera ezin hobean mantendu zen kanpian ikusten den bezala. Ez zion ezertarako balio izan Thor-en izpirituari deitzeak, trumoiaren jainkoaren babesak ez zen nahikoa izan itsasontziarentzat.

Thordisa Cardiff-eko ontzioletan eraiki zen, 1888an eta bere lehenengo jabeak Thomas Turnbull & Son izan ziren. Baina hondoratu zenean, beste jabe, bandera eta izen bat zeuzkan jada.

1913an, Italiar batek erosi zuen, Degrossi, eta *Lillia Dubild* izenaz zama ontzi bihurtu zuen. Baina ontzi honen inguruko guztia zalantzazkoa da, eta agian *Lilla* deitzen zen. Batzuen ustez hau izango zen bere hondoratzearen hasiera, tradizioak itsasontzi bati izena aldatzeak zorte txarra dakarrela baitio.

Badirudi 1917ko urriaren 13 hartan alemaniar urpekari batek *Doris* lurrun ontzia eraso zuela. *Lillia* hari laguntzera joan omen zen, eta torpedoek jo zuten. Urpekari alemaniarra, edozein ontzi etsai suntsitzeko inguru horretan jarria egotea ere izan zitekeen. Era batera zein bestera, 2.819 tona, 289 oin luze, 38 oin zabal, 219 zaldiko motorra zuen ontziak hondoa jo zuen, erdialdea ia erabat suntsiturik zegoela.

Horrela jarraitzen du, popa aldetik, makina gela inguruan, erdibitua. Hala ere, 1980 hamarkadan ikusi zutenek osorik zegoela diote. Orain, bi alde desberdinak zatitzen dituen zauria etorbide egokia da kirol murgilarientzat. Itsas izar, belaki, alga eta arrain artean gurutzatzen dute, batez ere aingira handi eta ilargiarra.

Kroskoa amuz josia dago, zamaontziaren burdin erdoildu artean katigatuta gelditu diren soka eta sare hondarrez. Legez kanpoko arrantzaleek maiz erabiltzen dituzten sakoneko karga bortitzen ondorioz ere ondatzen joan da.

Baina guzti honengatik ere ez dute amore ematen murgilari jakin-nahiek. Gerratea, isileko arrantza eta denboraren iragatez gain, *Thordissa* erabilgarria da, ez bakarrik gizakiontzat, itsas organismoentzat ere bai, babes eta oinarri gisa.